



**Negu honetan,
ahaztu hotza.**

**ESKAINZA
PAREGABEA**

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS

finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

- **Kultura:** Azaroak 16, Kontrargiko XX. Argazki Rallya
- **Zer berri:** Osoko bilkuran 2009ko Udal-tasak onartu dira

soraluzeko
hamabostekaria **187.** alea
2008ko azaroaren 11an

@ pil-pilean



**Kukumixo,
txikienen laguna**

ESTAZIOKO Bodega Taberna

**Oilasko errea
patatekin
jateko aukera**

Asteburuetan:

Barixaku eta zapatuetan, gauez
Domeketan, eguerdian

Enkarguz, **943 75 18 53** telefonoan.



Clínica Oftalmológica

RECALDE


Oftalmologi Klinika

www.clinicarecalde.com

Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR

Tfnoa.: 943 20 18 44

Barreterapia ikastaroa



Barrea ezagutu eta gozatzeko. Osasuntsu eta alai bizi nahi duen edonorentzat.

Abenduak 13, zapatua
6 orduko ikastaroa

Izena emateko:
943 75 13 04
edo
koordinazioa@pilpilean.com

ARDO ETA TXAKOLIN DASTAKETA

Fotografia de Josu Ortuzar®

Dastaketaren teknikak ikasi eta praktikatzeko Ardoa eta txakolina gustuko dutenentzat

Abenduak 12, barixakua
18:30etatik 20:30etara

Izena emateko:
943 75 13 04
edo
koordinazioa@pilpilean.com



Soraluzeko
Udala



PIL-PILEAN
EUSKARA ELKARTEA

**UBANE MADERA****MIKEL SANTIAGO**

URTE OSOAN ZAINDU BEHARREKO ALTXORRAK

Aupa, Mikel! Gure baserritarren eguna pasatu da, besteurtebatez. Hortxeelkartugarakoadrilan (*geu eta herriko gehienak*) babajan ederrean, bai Plaza Zaharreko karpapean zein herriko elkarte gastronomikoetan. Izan ere, Gaztañerre eguna dagoeneko bilakatu da herriko koadrilak elkartzen diren eguna; argi ikusten da hori Plazentziatik kanpora bizitzera joandako herritar mordoskarekin bat egiten dugunean Kalebarrenen.

Baina, izatez gure baserritarren eguna da Gaztañerre. Pentsamendu horrekin antolatu zuten hasieran. Etxaburuetakoa errebueltan egunero ipintzen duten azokaz aparte, Gaztañerre da-eta gure herriko baserriko produktuak ezagutu, ikusi, probatu eta erosteko egunik aproposena. Eta justu horixe azpimarratzea komeni dela uste dut. Izan ere, Gaztañerre egunak egundoko arrakasta lortu duen arren, baserritarren azokari bisitatxoa egitera joaten ez diren herritar askoren falta igartzen da. Eta Mikel, zuk nik baino hobeto jakingo duzu, Legarda baserrikoa zara-eta, bizimodu hori zein egoera larrian dagoen. Baserrian lanean diharduten gutxi daude, eta dauden gehienak nagusiak. Etor-kizun bel-beltza aurrean. Horrexegatik kalera etortzen direnean baserritarrak aintzat hartu eta kalera ekartzen dituzten produktu freskoak behar den moduan apreziatu beharko genituzkeela pentsatzen dut. Eta jakina, zerbait erosi barik ez joan etxera! 🍷

Baserritarren eguna da Gaztañerre

Ubane Madera

Azoka ez da egun bateko kontu hutsa

Mikel Santiago

Aupa Ubane!!! Baserritar titulua eman didazu eta ez dakit hori askotxo ez ote den nik egin ditudan merituak kontuan hartuta. Baina ez da erraza baserritik kalerako pausoa ezagutu dugunok gure buruari buruz iritzi argi bat izatea.

Baserritarrentzat kaletar eta kaletar askorentzat baserritar.

Dena den aitortu behar dizut baserrimina barru-barruan sartuta geratu zaidala. Baserriaren azken txanpa ezagutu nuen, ganaduak oraindik zeuzkateneko sasoia eta belarrondo auzolanean batzen zeneko aldia, urteroko uzta eguraldiaren mende erabat zegoelarik. Baina ni ikusle soila baino ez nintzen, eta asko jota noizean behineko laguntzaile. Horregatik Gaztainerreko Azoka beti bizi izan dut ilusio berezi batez, ez lagunak batzen garelako bakarrik (horregatik ere bai eh, kar kar), ni baino lehen izan diren belaunaldien bizimodu horrek oraindik ere bizirik dirauelako baizik.

Azoka ez da, ordea, egun bateko kontu hutsa. Baserriari egin dakiokeen mesederik handiena, bertatik ateratzen diren produktuak apreziatu eta urtean zehar erostea da, ez Gaztainerre egunean bakarrik.

Hortaz kaletarrak baserritar ere izan gaitzke (*baserritarron baimenarekin, jakina*) eta izan behar dugu, ez urtean behin bakarrik, herritar garen heinean guztiok baikara kaletar eta baserritar. 🍷

Goguan hartzeko**Ogi gogorrari, hagin zorrotzak.**

Euskal Herriko esaera zaharra



GUTUNAK

2009 ko ORDENANTZA FISKALAK

Udal Gobernuaren proposamena:

- KPI aren igoera orokorra %5 a
- Zaborraren tasa % 25,20a

Gure botua ABSTENTZIOA izan da. Abstenitu egin gera ERANTZUNKIZUNEZ JOKATU DUGULAKO. Hori bai Ezker Abertzaleari eta bereziki alkateari galdetzen diogu nola daitekeen hainbeste urtetan ezetza bozkatzea igoerak aurtengoarekin alderatuz txikiagoak izanik eta orain udal gobernuan daudenean horrelako igoerak planteiatzea. Argitu dezala mesedez.

EAJ ak Udal Gobernuak eginiko planteamentuari honako proposamenak egin dizkio:

- Ibilgailuen zerga ez igoetzea
- Baserritarrei zaborrik ez kobratzea
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga ez igoetzea

landa gunean

Proposamen hauei dagokionean ondorengo adierazi nahi degu. Ibilgailuen zergari dagokionez gure taldeak 2004 tik gaur egunerarte igoerarik ez du planteiatu. Arrazoia udalerrian dagoen aparkaleku gabeziaren aurrean herritarrak ez zergapetzeko asmo garbia azaldu dugu. Gai honen inguruan udal gobernuari galdetzea nahi diogu hauteskunde kanpainan Erregetxen aparkaleku publikoak egitearen alde azaldu ziren. Urte eta erdi igaro ondoren ez daukagu proiektu horren proposamen zehatzik. Eta dakigunez aparkalekuaren arazoa hoberantz joan beharrean txarrera dioa.

Baserritarrei zaborrik ez kobratzeari dagokionean EAJ ak gobernuan zegoenean ez zituen

baserritarrak zergapetzen kontzeptu honegatik. 2009 garren urtetik aurrera lehen aldiz Soraluzean baserritarrek zaborra ordaindu beharko dute. Gure posturaren arrazoia zertan datza. Lehenik eta behin landa gunearen aldeko apostu garbia da gurea. Bigarrenik jakin badakigu baserritarren aldeko laguntza zuzenak ez direla ugariak, beraz zeharkako neurri honekin laguntzeko era bat pentsatzen dugu dela. Ondasun higiezinaren zerga ez igoztearekin batera.

Beraz EAJ ak eginiko proposamen bat bera ere ez du onartu udal gobernuak.

Azkenik aurreko urtean itxita zeuden etxebizitzetako % 50 eko erreklama onartua izan zen. Gure zalantzak planteiatu genituen orduan, ez bait zegoen ordenantzarik hau erregulatzen zuena. Urte bete ondoren alkateari jakinarazi nahi diogu ez dituela etxeko lanak egin, ez bait da inolako ordenantzarik onartu egoera hauek erregulatzen dituenik.

Ondorioz argi eta ozenki salatzea nahi dugu Ezker Abertzaleak izan duen postura. Oposizioan zeudenean DENARIEZETZ SISTEMATIKOKI eta orain gobernuan daudenean Soraluzeitarrek urte askotan jasan behar izan dituzten IGOERARIK NABARMENENAK proposatzen dituzte. Espero dugu herritarrek ausartu dezaten Udal gobernu berriaren jarrera.

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

Gazte danborradaren jantzi bilketa

Umeen azkenengo danborrada eta gero ez ziren danborradako arropak batu eta aurten, tradizioa berreskuartzeko asmoa dago. Ardura-dunek mesedez eskatzen dute azkeneko danborrada horretako arropak dituztenek, Iratxo goxodendan edo Mari Mar harategian lagatzeko ahal den eta azkarren.

PIL-PILEAN EUSKARA ELKARTEKO HELBIDE ELEKTRONIKO BERRIAK:

Elkarteko kontuetaarako: koordinazioa@pilpilean.com
Aldizkariko kontuetaarako: aldizkaria@pilpilean.com
Publizitate kontuetaarako: publizitatea@pilpilean.com

eta **ORDUTEGIA**

Astelehenetik - Barixakura 10:00 - 13:30
Martitzen eta Eguetan 17:00 - 20:00

 **PIL-PILEAN**

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Leire Iturbe, Enara Agirre, Jon Basmari, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Mari Karmen Larrañaga
Altxorra

Era guztietako altxorrek daude munduan: eraikinak, panpinak, kotxeak, bitxiak, ... Soraluzek ere bere altxorrek ditu: baselizak, historia bitxiak, pertsonai ezagunak, ... batek baino gehiagok kromo bildumak, tresna zaharrrak, argazkiak, bikotea, familia, hizkuntza.... izango ditu.

Bakoitzak erabakitzen du zer den galdu behar ez litzatekeena, une horietan denbora azkar igarotzen da baina ez zaigu inporta berau miresten dugulako, begirada bat bota ondoren oroitzen atseginak bueltatzen dizkigulako.

Bada plaentxiatar bat gure hizkuntza eta umeekiko maitasuna, betidanik izan duena. Hau dela eta, orain dela urte askotxo, herriko seme-alabak euskaraz hezten hasi zen, herriko lehen andereñoa bilakatuz. Baliabide gutxiarekin baina gogo handiz ekin ere. Zenbat ikasle inguratu ote zaio babes bila, zenbat malko isuri lehortu ote ditu gure Ezozik!

Hemendik aurrera gutxiagotan ikusiko dugu baina ziur naiz bere gaztainerre festa kuttunean gure inguruan izaten jarrituko duela. Guk bai izan dugula altxorra, eta orain, hain gertu ez baina bai bihotzean. Ondo segi.

Zeintzuk osatzen doze Kukumixo?

19-26 urte bittarteko gazte talde bat gara, umiekin begirale moduan ibilitakuak eta esperientzia apur batekin. Batzuk begirale tituludunak gara eta beste batzuk haulortzeko bidian eskolak egitten dihardugu.

Zegaittik sortu doze taldia?

Pil-pileanek deittuta, Gazte Sailari begirako kezkak eta proposamenak jasotzeko batu ginan. Ume eta gaztientzat oso ekintza gutxi egitteko aukeria dago herrixan eta horri bueltia eman nahixan pentsatu genduan taldia sortzia. Orain arteko ekimenak kanpoko enpresak kudeatu dittuelako be bai. Udan Udaleku Ibiltaria deittutako ekimena egin genduan eta oso gustora geratu ginan, geu eta gaztetxuak.

Ze helburu finkatu dittuzue?

Umieri eta gaztetxuerei aisialdi jarduerak eskeintzia izango da gure helburu nagusia, ahalik eta modu erakargarri, hezitzaile eta dibertigarrixenian gure kultura ezagutzera emonaz eta euskara bultzatuz. Hasibarrittan gare, baina pixkaka sendotuz goiaz.

Zer egitteko asmua daukazue hemendik aurrera?

Momentuz ekintza soltiak izango dira guk egingo dittu-

((ENTZUTEKUAK))

Kukumixo Aisialdi Taldea




gunak baina aurrera begira, urte guztiko dinamikia hartzia gusatuko jakun. Gaztainerren hasi eta gabonak bittarteko plangintza egin dogu, baina beste data batzuk be betetzeko asmua daukagu.

Kukumixoko begiraleak Gaztainerre Azoka egunean.

Gaztainerretan hasi eta gabonak bittarteko plangintza

Zelan ikusten doze Soraluzeko aisialdi eskaintza?

Gaztetxeak adin tarte bateko aisialdi eskaintza betetzen dabela uste dogu; baita bartzuetan Pil-pilean Euskara Elkartiak be. Baina orokorrian gabezia haundixa dago, bai ekintzen aldetik baita azpiegitura aldetik be. Gaztelekua behin-behineko leku baten egon izan da eta umiendako leku propiorik ez da egon. Horri be aurre egin biharko jako. 🍀



TXURRUKA
JATETXEA

Txurruka auzoa
20590 SORALUZE

T. 943 75 15 81


HNOS. BENITO ANAIAK



Etxeko eta Sukaldeko Altxariak
Eskatu presupuestoak konpromisorik gabe

T. y F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Franco 59 urtean Ohorezko Alkate izan da



erabakia, eskualdeko beste hainbat herritan moduan. Guztira, 59 urtean izan du izendapen hori.

Horrela dio, egun horretan hartu zuten erabakiak:

...”1- Udaletxe honetako Ohorezko Alkate izendatzea onartu zen aho batez, berorren Gorentasuna, Estaturburua eta Ejertzitoetako Jenerala den Francisco Franco Bahamonde, inoiz menperatu gabeko Buruzagia eta Espainiaren Salbatzailea, errespetuzko eta atxikimenduzko gorenko froga

Azken Osoko Bilkuran aho batez onartu zen Francisco Franco, Sorluzeko Ohorezko Alkate izendapenetik kentzea, Udal Gobernu Taldeak aurkeztutako mozio baten bidez. Sorluzeko Udalak 1949ko abuztuaren 10ean hartu zuen Francori izendapen hori eskaintzearen

moduan, Gure Maitasun Beteko Espainiaren alde egindako lan izugarriagatik. ¡Viva Franco! ¡Arriba España!”...

Onartutako mozioak orduko erabakia bertan behera uzten du, Francisco Franco Bahamonde, espainiar diktadoreari Ohorezko Alkate izaera kenduz. 🌱

Babes ofizialeko 16 etxe zozketatu dira

Azaroaren 5ean, Etxaburueta kalean egiten ari diren Babes Ofizialeko 16 etxebizitza alokairuan hartzeko zozketatu zituzten. Guztira, 57 pertsonak eman zuten izena, denak sorluzetarrak. Javier Madrazo, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailburua, ekitaldira gerturatu zen beste hainbaten artean.



ALOKAIRUAN HARTZEKO ETXEA HONAKO HAUEI EGOKITU ZAIE:

- Isabel Esnaola**
 - Begoña Lete**
 - Jacinto Ganchegui**
 - Javier Merino**
 - Naiara Leturiondo**
 - Florin Matei**
 - Mohamed El Hassouni**
 - Purificacion Salguero**
 - Miguel Anjel Vallejo**
 - Jose Fernando Cid**
 - Unai Larreategi**
 - Iris Gonzalez**
 - Joseba Fernandez**
- Elbarrituentzat egokitutako pisua:
Luis Maria Pedro Kareaga

Hitzaldia pentsaioak osatzen ikasteko

Sorluzeko Udalak azaroaren 19an, pentsaioak osatzen eta dirulaguntzak eskatzen ikasteko hitzaldi bat antolatudu. Arratsaldeko 19:00etan izango da, Jubilatuen Etxean.

Ezoziko futbol zelaia putzuz beteta

Azkenaldian, keza asko entzun dira Ezoziko futbol zelaiaren egoera dela eta. Euri asko egiten badu, putzuz betetzen da eta ezin da futbol partidarik jokatu. Jarraitzaille eta jokalariek lehenbailehen konpontzeko eskatu diote Udalari.



Iturria: A. Berraondo



SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Zergak nabarmen igoko dira 2009. urtean

Etkez Etxeko Laguntza gehiago

Udaleko etkez etxeko laguntza zerbitzua eskatu duten erabiltzaileen kopuruak gora egin du nabarmen azkenaldian. Udalak lau langile ditu hortan, egun erdiko lanaldiarekin. Ongizate Sailarekin adostuta eta eskaeraren hazkunde horri erantzute aldera, hurrengo sei hilabeteetan langileen lanaldia bi orduz luzatzea (%29 igotzea) erabaki du Udalak.

Soraluzeko 11 odol-emailerri omenaldia



Urriaren 26an Soraluzeko hamaika odol-emaile omendu zituzten Arraten. 25, 40 eta 50etik gora donazio egin dituztenei oroigarri bana banatu zizkieten. Guztira Debabarrena eta Debagoienako 160 odol-emaile bildu ziren Kantabria jatetxean egin zen bazkarian.

Eguaztenean burututako Osoko Bilkuran 2009ko Udal tasak ANVko eta EAko Batzarkideei dagozkien aldeko bost botoz eta EAJ-PNVko hiru eta PSE-EEko bi abstentzioen birtartez onartu ziren.


Zerga guztietako urte arteko Kontsumo Prezioen Indizea %5a igotzea erabaki zen, zaborraren tasa izan ezik. Adostu diren igoeren artean, bada berrikuntzarik; landa eremuko etxeetan zabor tasa kobratuko da aurten lehen aldiz, zerga osoaren %40a bada ere. Beraz, baserriek %60ko hobaria izango dute. Salbuespen bezala, beste hainbaten artean, merkatu plazara jeisten diren baserriarrek ez dute salmentaren gaineko zerga ordainduko.

Zaborraren tasa, %25ean igoko da. 2008an, hiruhilabetero 25 euro ordaintzen badira, 2009an 31 euro ordainduko da.

Mankomunitateak adostutakoa onartu da

Mankomunitateak behin behinoko tasak finkatzen ditu eta Udalek behin betikoak. %23,30a igotzea proposatu zuen lehenengoak, zaborra kudeatzea gero eta garestiagoa dela argudiatuz eta hobekuntzak lortzea helburu izanik. Udalak, ostera, Mankomunitateak proposatutakoari



urte osoan %1,2ko igoera atxikituko dio, 10 urtean, zaborraren arloan 22 000 euroko zuloa estaltzeko konpromisoa hartuz. 

Debabarreneko 2009ko zaborraren tasak:

HERRIA	IGOERA %TAN
Deba	%17
Eibar	%20
Mutriku	%25
Soraluze	%25
Elgoibar	%27
Mendaro	%27,11



ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

PLACENCIA
KONTSUMO KOOPERATIBA

Esku eskura! Telf.: 943 75 13 45



MAPFRE

SZ SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabolatz, 5-B Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jlibarza@infonegocio.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10



Lakuesta
Optika

Ikusmen arazozen frogak
eta argibideak
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59



Batzuk erosketak modu tradizionalan egin zituzten.



Eskulangileen erakustaldiaz gozatzeko aukera izan zen.



Haurrek Kukumixokoekin ondo pasatu zuten.

GAZTAÑERRA 08



Azoka jendetsua izan zela ikus daiteke.



Basaklown, kale animazioa.



Bertsolarien saioa Erregetxean.



Joaldunak kalez kale ibili ziren.



Misio Taldeak Haitirako dirua batu zuen.



Gaztañerre Azokako 3 sarituak.



Karpa jendez lepo egon zen berandu arte.



Zeletako Asensio eta Erleiko Mercedes.



Jendetsuak eta interesgarriak izan ziren hitzaldiak.



Umeek asko gozatu zutun dantza egiten.

GAZTAÑERRE08



Umeen dantza erakustaldia Erregetxean.

ZER TRISTEN DOTSAZU?

Egokixa pentzatzten jatzu zabor zerga %25 igotzia?

2008an mankomunitateak %23,30eko igoera planteatu du zaborraren zergari dagokionez. Udalak mankomunitatearen igoeraz gain, %1,7 gehiago jasoko du lehendik zegoen zuloa 2010erako estaltzen joateko.

OLATZ OREGI

Langabetua



Ez, ez jata egokixa pentzatzten hartu daben erabakixa. Izan be, zaborra jasotzeko orduan ez dabe konstantzia bat matentzen eta gainera, herrixan daren obrekin zabor ontzixak falta dirala pentzatzten jata.

MANUEL CALDERON


Jubilatua



Larregikua dala pentzatzten dot. Bizi maila asko igo da eta ez dot uste momentu egokixa danik preziuak igotzen hasteko. Zaborran kontuan eskaintzen dan zerbitzuekin gehiegizkua da nerretzat hartu dan erabakixa.

MANOLI RIBAS

Etxekoandria



Gaizki ikusten dot. Bueno, arlo guztietan preziuen igoeria tokatzen danian zaila da ondo hartzia, batez be bizi maila orain dagan moduan egonda. Dana dala, uste dot ura eta zaborragaittik ordaintzen doguna nahikua dala.


LEO ZAROBÉ

Ikaslia



Neri momentuz gai honek ez dosta zuzenian kalte egitten baina krisixa dala eta uste dot ez dala zergak igotzeko momentua. Agian, zabor larregi egitten dogu eta kontsumua jeisteko asmuaikin hartu dabe erabakixa.

KOMIKIXA



Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaleta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2

T. 943 75 16 13

Santa Zezilia egunak ekitaldi ugari bilduko ditu

Azaroaren 22a musikarien patroia- ren eguna izaten da, Santa Zezilia. Haren omenez, herriko musikariak kalera aterako dira. Zapatua izango da aurten. Galtzagorri txarangak eguerdi aldean kaleko giroa alaituko du, jendeari dantzarako gonbitea eginez. Iluntzean aldiz, herriko abesbatza txistulariekin batera poteoan ibiliko da, tabernaz taberna kantuan eta txistuaren doinua herriko txoko guztietara zabalduz.



Musika Eskolakoak, eguenean

Azaroaren 20an, eguena, Musika Eskolakoak kalejiran irtengo dira urteroko ohiturari jarraituz, baina beste ekitaldi baten parte ere izango dira; Euskal Herriko Musika Eskolen elkarteak antolatuta "Musikalean" ekitaldia egingo da. EHME guztiak ordu eta egun berean, kalean, musika jotzen jardungo dute, denek, kamiseta berdina soinean eramanez.

Kontrargiren XX. Argazki Rallya berrikuntzekin dator

Azaroaren 16an, Kontrargi Argazki Taldeak, XX. Argazki Rallya antolatu du. Aurten argazki digitalak eta diapositibak onartuko dituzte lehenengoz. Izen-ematea 16an bertan egingo da goizeko 8:30etatik 9:30etara, Kontrargiko lokalean, Errabal kaleko 5. zenbakian eta bertan antolatzaileek parte hartzaileei argazkien gaiak banatuko dizkiete. Guztira, 4 sari banatuko dituzte. 90 euro lehen multzorik onenari, 70 euro bigarren multzorik onenari, 50 euro herriko argazkilari onenari eta aurten, berrikuntza moduan, argazki

digitaletan 15 urte arteko argazkilari gazteentzat ere sariak egongo dira. 📷



Barreterapia ikastaroa eta ardo eta txakolin dastaketa, abendurako

Pil-pilean Euskara Elkar-teak ikastaro bi antolatu ditu abendurako. Hilaren 12an, barikaxua, ardo eta txakolinaren dastaketan garrantzitsuenak diren ezaugarriak ezagutu eta ondoren dastaketa egiteko aukera izango da Ardoxka Elkarteko Mikel Garaizabalen eskutik. Arlo teorikoa eta praktikoa landuko dira, bi orduko saioan (18:30etatik 20:30etara).

Abenduaren 13an, barreterapia ikastaroa egingo da. Barrearen gozamenen murgiltzeko eta une zoriontsuak lortzeko aukera emango du, baita barrearen erregistro ezberdinak ezagutu eta lantzeko ere. Edurne Lasa eta Jose Mari Larrañaga izango dira ikastaroko arduradunak, biak UEUko kideak eta aktoreak. Sei orduko iraupena izango du eta



arduradunek, arropa eroso eta sudur gorria eramatea gomendatzen dute.

Ikastaro bietan izena emateko epea zabalik dago. **943 75 13 04** telefonora deitu edo **koordinazioa@pilpilean.com** helbidera mezu bat didali. 📷

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM
Desing
Disenñua eta Sormena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Adriss Bensaid garaile Antxintxika Krosean

Azaroaren lean egin zen 10 kilometroko ibilbidea duen Antxintxika Krosa, Soraluze eta Bergara bitartean. Gizonezkoetan, Adriss Bensaid bilbotarra izan zen garaile, 31 minutu eta 37 segundora helmugara iritsita.



Lehen sorluzetarra gizonezkoetan, Zigor Esnaola izan zen, 28. postuan eta 36 minutu eta 50 segundo behar izan zituen froga burutzeko.

Emakume sorluzetar bakarra frogan

Emakumeetan aldiz, Tabita Wambui izan zen azkarrena, 37 minutu eta 2 segundora. Ane Miren Etxabe izan zen parte hartu zuen emakume sorluzetar bakarra eta 51 minutu eta 57 segundo behar izan zituen helmugara iristeko.

Gizonezkoetan:

28. Zigor Esnaola	36:50
34. Alberto Calderon	37:23
50. Xabier Lijo	38:44

Emakumezkoetan:

20. Ane Miren Etxabe	51:57
----------------------	-------



Uretako sorosleentzako ikastaroa

Kirola Euskaraz programaren barruan, uretako sorosleentzako birziklaketa ikastaroa antolatu dute. Eskolak Bergarako kiroldegian izango dira eta KDari (*Kanpoko Desfribiladore Automatikoa*) buruz formazio osagarria jaso ahal izango da.

Azaroak 15: saio teorikoa eta birziklaketa, 09:00etatik-14:00etara eta 16:00etatik - 20:00etara.

Azaroak 16: saio teorikoak eta ur saioak, 09:00etatik - 13:00etara.

Izena emateko, Bergarako kiroldegian edo **943 777 095** telefonora deitu.

EMAITZAK

PILOTA

Del Rey - Eulate	13
Berasaluze IX - Laskurain	18

Titin III - Pascual	22
Mtz de Irujo - Laskurain	14

Xala - Goñi III	22
Olazabal - Lascurain	21

FUTBOLA

Getariako Keta F.T - Sora (Erreg. M.)	4 - 0
--	-------

Sora (Jub) - Aretxabaleta K.E	2 - 4
----------------------------------	-------

AGENDA

Karakatera igoera

azaroaren 15ean izango da Elgoibarko Morkaiko Mendi Elkar-teak hamabostgarrenez antolatu du Elgoibartik Karakaterainoko igoera hilaren 15ean. Parte hartzaileak goizeko 10etan irtengo dira Plaza Handitik eta ibilbidea ez da markaturik egongo. Parte hartu nahi dutenek bertara jotzea besterik ez dute eta izen ematea doakoa izango da.

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. T. 943 75 17



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

**Errekalde 21
20590 SORALUZE**

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

MARE ILEAPAINDEGIA



**ESTETIKA
SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

GAZTELUPE taberna

tel: 943 75 20 81



ZORION AGURRAK

**Nerea Martin**

Azaroaren 9an 12 urte
Patxo haundi bat
famiiliaren partetik

**Naroa Gil Ayora**

Azaroaren 8an 5 urte
Zorionak eta muxu pila bat
etxekeoen partetik



Irea Rascon Criado
eta **Gorka Rascon Criado**
Azaroaren 6an 4 urte eta
azaroaren 6an 3 hilabete
Muxu haundi bat
etxekeuen partetik

**Gorka Alonso Guridi**

Urriaren 8an jaioa
Muxu haundi bat
etxekeoen partetik

jaiotakoak

ANER GARCIA DOS SANTOS

**hildakoak**

FRANCISCA IGLESIAS CASTRO

**LEHIAKETA****AURREKO ALEKO ERANTZUNA****► Leziako haitzak bota zittuan jentilak ze izen zeukan?**

- 1- Artzabal
- 2- Harri-haundi
- 3- Erraldoi

► Saria:
Euskaraz bai kamiseta eta mahai jolasa.**► Irabazlea:**
Enkarna Arrizabalaga**► Basarrixak...**

88 dare Soraluzen, lau auzotan banatuta. Gehixenetan jendia bizi da, beste batzuetan inor bizi ez arren, nekazal jarduna dago eta gutxi batzuk hutsik dare.



ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: L. Ariznabarreta

BASARRITTAR TXIKIXAK

Argazkiko bi mutiko txikixak honek Luis Ariznabarreta eta Xabier Unamuno dira. 1975eko maia-tzan 17ko Euskal Jai egunian etara zeben, 6 urte zittuela. Argazkixa, Eliza onduan zeguan zinian parian etarata dago, frontoian.

Garai hartan umiak Euskal Jaixan baserrittarrez janzten ziran, gaur egun, Gaztañerreko azoka egunian egitten dan moduan. 🌀